

SASKIBALOIA. Bartzelonak erritmoa ezarri zuen lehen minututik, eta finalerdia erraztasunez berdindu zuen atzo

Tau lokartu batek garaipena eskura utzi dio Bartzelonari

Gasteiztarrek tentsiorik gabe jardun zuten bigarren norgehiagokan

BARTZELONA**91****TAU BASKONIA****75**

Bartzelona: Sarunas Jasikevicius (11), Rodrigo de la Fuente (10), Arthuras Karnisovas (9), Ademola Okulaja (20), Andrea Camata (4) -hasierako bostekoa; Nacho Rodriguez (4), J. C. Navarro (4), Alain Digbeu (14), Efthimos Rentzias (14), Alfons Alzamora, Cesar Bravo.

Tau Baskonia: Elmer Bennett (11), Laurent Foirest (6), Hugo Sconochini (3), Luis Scola (16), Dejan Tomasevic (7) -hasierako bostekoa; Chris Corchiani, Christos Harissis (6), Andres Nocioni (17), Sergi Vidal (2), Gabriel Fernandez (7).

Markagailua: 30-21; 54-41 (atsedenaldian); 75-58; 91-75.

Arbitroak: Sancha, Garcia Ortiz, Perez Perez. Kanporatuak: Hugo Sconochini eta Gabriel Fernandez Tau, Baskonian; eta Andrea Camata, Bartzelonan.

Jon Rejado | **GASTEIZ**

Zaila da ulertzea nola alda dai-tekeen horrenbeste talde baten jarrera bi egunetan. Ostegunean Tau Baskoniak partida kontrolpean izan bazuen, atzokoan baloia nondik zebilen ere ez ziren ohartu arabarrak, eta Bartzelonari finalerdia berdintzeko aukera oparitu zion.

Ezin ilunago hasi zuen Tau Baskoniak finalerdietako bigarren partida. Bartzelonan behin irabaztearekin dena eginda egongo balitz bezala kantxaratu ziren Ivanovicenak, eta Bartzelonari mugaraino erraztu zion lana. Gasteiztarrek ez zuten inolako zerikusirik izan aurreko partidako taldearekin. Defentsa penagarria, tentsiorik gabe eta ideiarik gabe erasoan. Obortoren hutsunearekin jarrera guztia galdu izan balute bezala defenditu zuten, eta Camata, Rentzias zein Okulaja lasaitasun

osoz mugitu ziren saskipean. Lehen laurdenean 30 puntu jaso zituzten Ivanovicen jokalariek, eta hori sinestezina da Tau sasoi betean dagoenean.

Defentsa eskasak begiak itxi zizkion Baskoniari erasoan, eta inolako irizpiderik gabe antolatu zuen eraso. Aito Garcia Renesesek Bennett gelditzea erabaki zuen, eta aurreikusitako zitekeen bezala, Rodrigo de la Fuente jarri zuen joko antolatzaileari itsatsita. Bururik gabe gorputz baten moduan mugitu zen orduan Gasteizko taldea. Baloi gehiegi galdu zituzten, Bartzelonaren kontraerasoak ahalbidetatuz. Sconochinik berak, atzo arte kanporaketa biribilak egin arren, lokartuta egon zen kantxan eman zituen minutu guztietan.

Egoera aldaketekin konpontzea bilatu zuen Tauko teknikoak, baina ez zuen Bartzelonaren nagusitasuna gelditu. Gabriel

Fernandez kantxaratu zuen Ivanovicek, Bartzelonaren defentsa sendoa ireki ahal izateko hegaleko pibot argentinarraren kanpoko jaurtiketarekin. Baina horrek ez zuen etekinik eman. Chris Corchiani jarri zuen Bennetten ondoan, bi joko antolatzaileekin partidaren erritmoa behingoz lortu ahal izateko. Baina atzokoa ere ez zen Corchianiren eguna izan, eta hobekuntza keinu gutxi batzuk baino ez zituen egin Baskoniak.

Egur handia hartu zuen Tau Baskoniak bigarren erdian

Markagailuan zegoen aldea txikitu ahal izateko (partidaren minutu gehienetan hamabost puntuz egon zen azpitik) Ivanovicek egin zuen aldaketarik garrantzitsuenatsedenaren ostean gertatu zen. Pibot bakarrekin kantxaratu zuen Tau, Tomasevic. Hari laguntzen, Bennett eta hiru hegaleko: Sconochini, Foirest eta Nocioni. Azken horrek saskipean zein kanpoaldean jokatzeko duen erraztasunak, ordea, ez zuen ezertarako balio izan, Bartzelonak ordu arte ezarritako erritmo bera mantendu baitzuen.

Egoera ez konpontzeaz gain hainbat unetan egur handia hartu zuen Gasteizko taldeak, Bartzelonak kontraerasoan askotan txikitu baitzuen Tauren



TONI ALBIR / EFE

Bartzelonako Digbeu eta Tauko Scola, atzoko partidaren.

saskia. Hortaz, partida bukatu arte zain egotea erabaki zuen Ivanovicen taldeak, Gasteizen kanporaketa erabakitzeke aukera lortu ahal izateko. Dena den, asko aldatu behar du egoerak hori lortu ahal izateko, Oberto itzuli badaiteke ere, pibot argentinarra sasotik kanpo egongo baita.

NBA. Los Angeles Lakersek kanporaketa berdindu du, Sacramento Kingsi 106-102 irabazi ostean

New Jersey Netsek final handirako txartela lortu du

Agentziak | **BOSTON**


NBAk badu bere lehen finalista: New Jersey Nets taldea. Jason Kidd joko antolatzaile bikainaren taldeak final handirako txartela eskuratu zuen atzo Bostonen, Celticsi 96-88 irabazi ostean. New Jersey Nets taldea sortu zenez geroztik —duela 29 urte— NBAko final handirako sailkapena lortu duen aurreneko aldia da.

Ohiturari jarraituz, Kidd izan zen partidako onena, 14 puntu, 13 errebote eta 13 asistentzia lortu baitzituen. Partida, halere, ez zen oso erraza izan New Jerseyko taldearentzat, partida erdia amaituta 10 puntugatik galtzen baitzuen, 54-44.

Paul Pierce eta Antoine Walker Celticsen jokalariek erabakigarrienak ondo heldu zituzten orduan New Jerseykoek. Partida amaiera arte bi taldeen arteko aldeak oso txikiak izan ziren, baina azkenean Keith Van Hornek erabaki zuen partida, hiruko jaurtiketa batekin.

Lakers bizirik

Los Angeles Lakersek hiruna berdindu zuten beren kanporaketa, Sacramento Kings taldeari 106-102 irabazi ostean. Bryanten eta O'Nealen lana erabakigarria izan zen. Aurrenak 41 puntu eta 17 errebote lortu zituen; Bryantek 31 puntu eta 11 errebote. Partida erabakigarria gaur jokatu da, Sacramenton.



JESSICA RINALDI / FRANCE PRESS

Jason Kidd New Jerseyko joko antolatzailea garaipena ospatzen.

Ford
MUGARRI

Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
Tel.: 943 797 564

ERABILITAKO AUTOAK

XANTIA HDI-110-W	99
XANTIA HDI-100-5A	99
MONDEO TDI-GHIAW	00
MONDEO TDI-CLX W	98

Km 0

MONDEO TREND TDI
MONDEO TREND TDI
MONDEO TREND TDI
FOCUS TREND 16i
FOCUS TREND 18i
FOCUS TREND TDI
TOYOTA RAV-4 TDI